

KANPAINARAKO HAURRENTZAKO OINARRIZKO ESKULIBURUA

“Zeugan dago ALDAKETAREN GILTZARRIA”

1.- Sarrera (oinarriak).

- Kristau konpromisoa munduan IZAN eta EGOTEKO modu bat da, gure inguruan eta munduan gertatzen dena ikusi eta entzutera gonbidatzen gaituena.
- Ikusten ditugun gauzen artean, batzuek zerbait sentiarazten digute, ez zaizkigu gustatzen, edo hausnarketa egitera bultzatzen gaituzte. Jesusek errealitate hori aldatzeko deia egiten digu, ez baita ona ez pertsonentzat, ezta planetarentzat ere. Konpromisoa hartzeko eskatzen digu; “Jesusek bere ikasleei esaten die: “Besteek zuei egitea nahi duzuen, egin zuek ere besteei”. (Lucas 6, 31).
- Taldean, pentsa ezazue zein gauza ez dituzuen atsegin, Jesusek irakasten digunaren arabera, eta nola alda gaitzakeen horrek. Errealitate hori aldatzeko zer egin dezakegun ere komentatuko dugu.

2.- Abestia.

Hausnarketa motibatuzko, abesti bat entzungo dugu: “BETOR BAKEA”, Maite Losada

*Ez kendu, gero, ume bati ogirik,
ezta ezpainetatik irribarrerik!
Herriak ez daitezela borrokan ibil!
Ez itzali, gero, maitasun begiradarik!*

*Elkarrekin inoiz ez ezaxolarik!
Ez gorde, gero, senideari gorrotorik!
Esperantzarako beranduegi ez baita,
ez gogortu, gero bihotzik!*

**ETOR BEDI BAKEA
HERRIETARA, BIHOTZETARA.
ETOR BEDI BAKEA
PERTSONENGANA, LAGUNENGANA!
MAITASUNAK ALDA DEZALA
MUNDUA.**

*Denok poz-pezik, eskutik oratuta,
maitasuna lege bakarra da eta.
Aberatsek, gutxien daukatenek,
ez daitezela esplota!*

*Ez kendu, gero, gauari musikaririk!
Sortutakoari, egunsentiari... distira!
Haizearen laztanak sentituko ditugu!
Betor bakea gure herrira!*

ETOR BEDI BAKEA...



3.- Otoitza.

Abestiaren bidez partekatu duguna gogoan hartu, eta otoitzera eramango dugu.

OTOITZA

Jauna, lagun iezadazu zerbitzua ematen.

Jesus
Jesus, zure bidea jarraitu nahi
dut, alai bizi eta
besteei zerbitzua eman.
Zuk esaten didazun
lekuan. Nire familian,
nire lagunekin,
eskolan, taldean,
auzoan, edo
herrian.

Adi egon nahi dut
besteen beharizanen aurrean,
bereziki sufritzen duten
pertsonekin.

Zure modukoa izan nahi
dut, guztiei zerbitzua
eman.

Lagun iezadazu lortzen



Marcelo A. Murúa.

4.- Dinamika

Konpromisoen zuhaitza.

Zuhaitza horman edo lurrean jarriko dugu (A3 tamainan inprimatuta), edo arbelean margotuko dugu. Ondoren, hurrei esango diegu begiratzeko ea zer idatzi duten gustatzen ez zaien edo ulertzen ez duten errealitatearen inguruan, eta pentsa dezatela zer egin dezaketen hori aldatzeko, zein konpromiso har dezaketen (haiengandik gertu edo haien inguruan). Adibidez: Ez zaie indarkeria gustatzen: Kideekin indarkeriazko jarrerarik ez izateko eta inor ez jotzeko konpromisoa har dezakete; ez bazaie kutsadura gustatzen: Birziklatzeko eta lurrera zaborrik ez botatzeko konpromisoa har dezakete). Parte-hartzaile bakoitzak paper zati edo post-it batean idatziko du, fruta formarekin, eta zuhaitzean jarriko du, konpromisoen zuhaitza osatzeko.

5.- Itxiera

Irakurri testu hau. Mundua hobetzeko aldaketa txikiak egiteko ideiak emango dizkigu. Proposatutako ahalekiak bi edo hiru hartzea, ikasturtean zehar ekintza jakin batzuk burutzeko konpromisoa har dezaten.

Honako konpromisoak hartuko ditut:



1.- Pertsoneri begiratzea, beren arropa, adina, azalaren kolorea edo daukaten diruagatik epaitu gabe.

2.- Pertsoneri entzutea.

3.- Eskuzabala izatea, kostatzen bazait ere.

4.- Daukadana beste haur batzuekin partekatzea.

5.- Telebista, tableta edo mugikorrari begira denbora gutxiago ematea eta senideekin, auzoko lagunekin, ikaskideekin eta aisialdi taldeko jendearekin gehiago egotea.

6.- Jarduerak antolatu edota lanak egiteko boluntarioak eskatzen dituztenean, neure burua eskaintzea; ikastetxean, etxean, kirol taldean, herrian edo auzoan, beste pertsona batzuentzat ere onura ekartzeko.

7.- Beti eskerrak ematea.

8.- Beste pertsona batzuekin egotea dirua baino garrantzitsuagoa dela onartzea.

9.- Nire ekintzek besteei nola eragiten dieten pentsatzea.

10.- Planeta zaintzea: kalean edo mendian zaborrik ez botatzea, birziklatzea eta arduraz erostea behar dudana, ez soilik nahi dudana.



